

«Euskara euskaraz babestu»

Datorren asteko Araba Euskaraz-en parte hartzera dei egin du Laudio ikastolak

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

«Euskara euskaraz babestu». Iñaki Mendiguren Laudio Ikastolako lehendakariak aurtengo Araba Euskaraz-en kantuarren hitza baliatu du festan parte hartzeko deia egiteko. Izan ere, prestakizunetan burubelari dira Aiaran datorren asteko igandeko jai bikaina izan dadin.

ARABA EUSKARAZ-EK Laudio bisitatzen duen hirugarren aldia da, eta beraz, Kaitin Allende koordinatzaileak atzo azaldu zuenez, doikuntzaren bat edo beste ezarri behar izan dute, ibilbidean edo egitarauan handienak.

Baina Laudioko hirugarren festa izateak euskarak Aiara eskualdean izandako bilakera gogoeta egiteko modua ere eman du, eta halaxe egin zuen Mendigurenek atzoko aurkezpenean. Izan ere, lehendakariak gogora ekarri zuen 1983ko festaren garaiako erronka euskara ikastea baino ez zela, bigarren aldia (1993) ikastolaren hazkundearen ingurukoa izan zela, eta 2000. urtekoak, berriz, ikastetxearen nahiz euskararen erabilpena sendotu beharra dakarrela.

Mendigurenek zerbakiak eskaini zituen hitzak arrazotzeko: euskaldun kopurua hogeitun puntutan igo da Aiaran azkeneko hogeitun urteotan, eta horrela, euskaldun eta ia euskaldunak biztanleen



Araba Euskaraz-en kantuarren eta bideoaren aurkezpena, joan den apirilean.

erdiak dira ia-ia (%45koa zen 1996ko inkestaren arabera).

1.500 laguntzaile ariko dira

2000. urteko Araba Euskaraz, bada, egoera onean dator, baina «egiteko dezent» daude oraindik. Horretarako lanean dihardute aspalditik 150 pertsonak, eta egunean bertan 1.500 laguntzaile ariko dira jo ta ke. Laudioarako bidea hartzeko tenorea da atzera.

60.000 pertsonaren zain daude

LAUDIO Ikastolako arduradunek espero dute 60.000 pertsonak joko dutela Aiarako hiriburura aurtengo Araba Euskaraz dela eta. Hortaz, garraioari buruzko xehetasunak lehenbailehen eman dituzte, honoko hiru atal nagusiotan sailkatuz: Gasteiztik autobusez joan ahal izango da La Union enpresaren zerbitzu bereziaren bidez

(lehenengoa 09:00etan, 10:00etatik aurrera etengabe, eta itzulera, 20:30etik aurrera); Bilbotik trenetako eskaintza ona izango da (hamar minututik behin); eta Gipuzkoatik kotxez doanak Basauriko Bilbondo guneko aparkalekuan utzi eta Laudioaraino autobusez joateko modua izango du. Garraio publikoan, mesedez.



JOXE LACALLE

Euskarak irakaskuntzan duen egoera salatu dute Iruñean

Sortzen-Ikasbatuaz eta Ikasle Abertzaleak taldeek antolatuta, manifestazioa egin zuten atzo Iruñean, NUPen eta Nafarroako Lanbide Heziketan euskarak duen egoera salatuz. Manifestazioan, besteak beste, EHko kide Fernando Barrenak parte hartu zuen, eta Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko arduradunen dimisioa izan zuen mintzagai: «Zuzendaritza berria txotxongilo hutsa izanen da», erran zuen.

I. Toponimia Mintegia hasiko da datorren astelehenean Donostian

Eusko Jaurlaritzaren eta Quebecoko Gobernuaren arteko elkarlan hitzarmenaren emaitza da

Erredakzioa / Donostia

DATORREN astelehenean HABERen Donostiako egoitzan I. Toponimia Mintegia hasiko da, Eusko Jaurlaritzak eta Quebecoko Gobernuak antolatuta. Hasiera ekitaldia goizeko 10:00etan izango da, eta bertan Jaurlaritzako Kultura sailburu Mari Karmen Garmendiak esku hartuko du. Izan ere, mintegia Eusko Jaurlaritzak antolatu du, Quebecoko Gobernuarekin batera.

Toponimia ardatz harturik, aste osoan egingo dira hitzaldi eta eztabaidak mintegian, eta bertan 40 bat aditu esku hartuko dute. Aditu batzuk atzerritik etorriko dira, Quebecetik zein Katalunian, Galizia eta Bretañatik. Gehienak, hala ere, Euskal Herrikoak izango dira.

Quebecetik datozen adituen artean mintegiaren antolatzaileek izen bi nabarmendu dituzte: Henri Dorion eta Christian Bonnelly. Biek nazioarte mailan eskarmentu zabala dute, bai eta Nazio Batuen Erakundeak toponimiaren normalizazioan egin duen jardunean ere.

Lankidetzaren fruitua

Mintegi hau Jaurlaritzak eta Quebecoko Gobernuak 1999ko abenduan elkarrekin izenpetutako hitzarmenaren barruan antolatu dute. Izan ere, hizkuntza gaietan elkarlanean jardutea hitzartu zuten, eta duela hilabete bat, esaterako, Quebecen enpresetako hizkuntza normalizazioari buruzko mintegia egin zen. Hala, bai, gai horri buruzko beste ekimen bat ere iragarri dago ja aurki egiteko.

Elkarlana, hala ere, ez da mintegi eta hitzaldien antolaketara mugatu. Hizkuntza gaietan diharduten bi gobernuetako lan taldeen artean informazio trukaketa bultzatu da.